



Zeberioko Udalak, 2020ko zemendiaren 25a Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazinoarteko Eguna dala eta, “#Indarkeria Matxistaren Aurka” lehiaketa deitu dau.

Jarduera hau Zeberioko Udalak indarkeria matxistaren aurka urtero egiten dauan sensibilizazio eta prebentzio-kanpainaren barruan sartzen da.

Ekimen honen helburuak ondorengoak dira::

- Herritarrak gure gizartean eta gure herrietan indarkeria matxista ezabatzeko preminaz kontzientzietea.
- Sormena tokiko ikuspeg ifeministatik sustatzea, aurkeztutako lanak jentaurrean jarri eta, holan, Zeberioko biztanleek gaitzsozial horren aurrean daukien sentimentua ikusarazteko.
- Ahalduz indibiduala eta kolektiboa bultzatzea, bai eta balioen transmisioa be, adierazpen artistikoa funtsezko tresna lez erabiliz errealidad esozial hori eta haren eraldaketa aztertze, munduko biztanleriaren % 49,5 garen emakumeontzako bardintasunezko eta bidezko gizarte bat bilatze aldera.

*“Arimak nirilez min ematen deusunean ulertuko nauzu.”* Frida Kahlo, margolaria eta poeta.

**#INDARKERIA MATXISTAREN AURKA. LEHIAKETAREN OINARRIAK** Oinarri honeetan adierazitako baldintzak beteten eta gura daben persona guztiek parte hartu ahal izango dabe, banan-banan edo taldeka. Taldean edo alkarte baten izenean parte hartuz gero, sortzaileen datuak erantsi beharko dira.

Adinbakoak aurkeztu ahal izango dira, betibe amaren, aitaren edo legezko tutorearen baimenagaz batera, haren parte-hartzea onartuz gero. Ez da adinbakoen lanik onartuko baimen hori barik.

#### LEHENENGOA:

##### Kategoriak eta sariak

1. KATEGORIA → **ESKOLAKOAK** Zubialde Ikastetxeko 13 urtetik beherakoak.

**Saria: Kirol-kamera 1.**

2. KATEGORIA → **ZABALIK** Adin nagusikoak eta 18 urtetik tutoren baimenagaz.

**Saria: Liburu elektronikoko 1.**

\* Kategoria honeetako obra irabazle biak Udaletxean egongo dira ikusgai 2021eko zemendiaren 25era arte.

#### BIGARRENA:

**Gaia** → **INDARKERIA MATXISTAREN AURKA.**

#### HIRUGARRENA:

**Ezaugarriak** → Obra librea da, eta edozein sormen-teknika erabili daiteke. Tamaina DIN a3 (29,7 cm x 42 cm)

#### LAUGARRENA:

**Euskarria** → Udalak luma-kartoizko euskarri bat emongo dau debalde, obra erregistretako unean jarteko, baita honeen guztien anonimotasuna bermatuko dauan bilgarria be.

#### BOSTGARRENA:

**Epea** → Proiektuak lehiaketara aurkezteko epea zemendiaren 2an hasiko da, 9:00etan, eta 2020ko zemendiaren 20an amaituko da, 14:00etan. Epe horretatik kanpoa urkeztutako lanak ez dira onartuko.

#### SEIGARRENA:

**Aurkezteko lekua** → Udaletxean, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik barikura.

**Modua** → Lanak SINADURA BARIK entregauko dira, gutun-azal bategaz batera. Gutun-azal horretan lañaren KATEGORIA eta izena agertuko dira aurre aldean (kanpotik). Gutun-aza litxiaren barruan, parte hartzen dauan pertsonaren, taldearen edo alkartearen datuak egongo dira, baita posta elektronikoko bat eta hartu-emonetarako telefono bat be.

**Frogagiria** → Kategoria bakotxean zenbaki bat emongo jako lanari eta datuak daukazan gutun-azal bakotxari, aurkezpen-hurrenkeraren arabera, eta erregistroaren frogagiri bat be emongo da.

#### ZAZPIGARRENA:

**Epai mahaia** → Epai mahaia adierazpen artistikoan edo diseinuan adituak diran persona bik eta Udaleko bardintasun-teknikariak osatuko dabe.

#### ZORTZIGARRENA:

**Jentaurreko erakusketa** → Lehiaketan parte hartzen dabenek beren obra lagatzeko konpromisoa hartzen dabe, edozein bide erabilita jentaurrean jarteko, harik eta erakusketa-aldia amaitzen dan arte; orduan itzuliko jakez lanak parte-hartzaileei. Erakusketa-aldi orokorra 2020ko zemendiaren 30ean amaituko da, gehienez be.

#### BEDERATZIGARRENA:

**Sari-banaketa** → Sari-banaketa zemendiaren 25ean izango da, 18:00etan, Plazako frontoiko aterpean.